LEZOKO EMAKUME TALDEA

Urteetan mobilizazio ugariak egin ondoren, beharrezkoa ikusten dugu oraindik gure herriko eraldaketa gauzatzeko pausuak ematen jarraitzea, erreprodukzio sozial jasangarria politika horien erdigunean jartzeko kapitalmetaketa alde batera utzita, azken horrek gehiengo sozialen bizi-baldintzak prekarizatzen dituelako eta natura merkantilizatu eta esplotatzen duelako, etorkizuneko belaunaldien biziraupena arriskuan jartzeraino. Beharrezkoa da herritar eta instituzioek interpelazio hori gure gain hartzea, eta ez makillaje-politika hutsetan geratzea. Inor atzean utzi gabe, lan-errealitatearen, arrazaren, sexu-desiraren orientazioaren, administrazio-egoeraren, adinaren eta beste edozein arrazoiren arabera sistemak ezartzen dituen diskriminazio eta zapalkuntza ugariei erantzunez. Erabateko konpromiso bat hartu behar dugu gure udalerrietako pertsonekin, berdintasunaren eta justiziaren alde.

Lezoko emakume taldeak, urtean zehar, behar bezalako lanketa bat egiteko asmoarekin honako puntu hauek jarri nahi ditu mahai gainean abiapuntu gisa:

- Adin eta jatorri ezberdinen arteko ezagutza, beharrak eta laguntza ahalbideratuko duen herri mailako berdintasun mahai bat sortzea.

- Udalerriko emakumeek egindako ekarpena balorean jartzeko memoria historikoa lantzea.

- Genero ikuspegi batetik udalerriko beharren azterketa egitea eta errealitate hori hobetzeko neurriak martxan jartzea.

- Zaintzen beharrei erantzuteko udal espazioak egokitzea eta pertsonen arteko harremanak zaintzea.

- Gazteei zuzendutako rol berdinzaleen gaineko hezkuntza jarduerak bultzatzea.

- Erasoen aurrean baliabide guztiak eskaintzea.

- Adin eta jatorri ezberdinen arteko ezagutza, beharrak eta laguntza ahalbideratuko duen berdintasun mahai bat sortzea herrian.

Después de años de numerosas movilizaciones, vemos necesario seguir dando pasos para llevar a cabo la transformación de nuestro país, al margen de la capitalización que ponga la reproducción social sostenible en el centro de estas políticas, que precariza las condiciones de vida de las mayorías sociales y comercializa y explota la naturaleza, hasta poner en peligro la supervivencia de las generaciones futuras. Es necesario que los ciudadano/ass y las instituciones asumamos esta interpelación, y no que quede en meras políticas de maquillaje. Sin dejar a nadie atrás, respondiendo a las múltiples discriminaciones y opresiones que impone el sistema en función de la realidad laboral, la raza, la orientación del deseo sexual, la situación administrativa, la edad, etc. Hemos de adquirir un compromiso absoluto con las personas de nuestros municipios a favor de la igualdad y la justicia.

El grupo de mujeres de Lezo, con la intención de realizar un buen trabajo a lo largo del año, quiere poner sobre la mesa los siguientes puntos de partida:

- Creación de una mesa de igualdad de ámbito local que posibilite el conocimiento, necesidades y apoyo entre las diferentes edades y procedencias.

- Elaboración de la memoria histórica para poner en valor la aportación de las mujeres del municipio.

- Realizar un análisis de las necesidades del municipio desde una perspectiva de género y poner en marcha medidas para mejorar esta realidad.

- Adecuación de espacios municipales para atender las necesidades de los cuidados y cuidado de las relaciones interpersonales.

- Impulsar actividades educativas sobre roles igualitarios dirigidas a la juventud.

- Ofrecer todos los recursos posibles ante las agresiones.

- Creación de una mesa de igualdad en la localidad que posibilite el conocimiento, necesidades y ayuda entre las diferentes edades y procedencias.